

2019

Urteroko
jarduera-txostena



Aurkibidea

Hitzaurrea	3
2019ko zenbakiak	4
Zer da BCSC?	5
Zerbitzuak	7
Kontzientziazioa eta prestakuntza	8
Eduki teknikoak	12
Enpresentzako laguntza	15
Ekitaldi nabarmenak	16
BCSC hedabideetan	21

Javier Diéguez

Basque Cybersecurity Centre-ko zuzendaria

2019. urteak erronka handia ekarri zion Zibersegurtasun Euskal Zentroari. Baikortasunez, anbizioz eta ilusioz ekin genion, eta egindako lanaren uza jaso dezakegu orain: Euskadi lurralde ezagunagoa da eta aitortza handiagoa du nazioartean, enpresekin, teknologia-guneekin, elkarteekin, erakunde publikoekin eta intereseko beste antolakunde batzuekin egin dugun lanari esker.

2019an Euskadi zibermehatxuetatik babesteko prebentzio-gaitasuna garatzen jarraitu dugu, neurriak ezarri ditugu euskal industriak zibersegurtasunaren alorrean duen heldutasuna neurtzeko eta hobetzeko, eta zentroak ematen dituen zerbitzuak era esanguratsuan hedatzea lortu dugu. Horren guztiaren ondorioz, bide onean gaude gure asmoa betetzeko: gizarte babestuago egotea eta enpresa-ekosistemak zibersegurtasuna bere egitea, ez babes-neurri modura bakarrik, baita lehiatzeko abantaila modura ere. Gure ekimenak izandako eraginaren adibide dira, esaterako, sustatu ditugun 219 kontzientziazio-jardunaldiak, eta BDIHko zibersegurtasun-nodoaren cyber range-ren jardura handitu izana; BDIH, izan ere, punta-puntako azpiegitura da profesionalak trebatzeko, simulazio-ariketak eta defentsako eta erasoko taktiken entrenamendua eginez.

Halaber, 2019an tokiko, estatuko eta nazioarteko eragileekiko lankidetzak eta koordinazioa sustatzen jarraitu dugu, Euskadi zibermehatxuetatik babesten, euskal zibersegurtasun-ekosistema sustatzen, eta ideiak, talentua eta inbertsioa erakartzen lagundu dezaten. Uztailetik, Zibersegurtasun Euskal Zentroak Carnegie Mellon baimena du CERT (Computer Emergency Response Team) marka erregistratua erabiltzeko. Azpimarratzeko moduko ekimenak izan dira, halaber, elkarriketak abiarazi izana Europako "Cyber Valleys Project" lankidetzak-egitasmoaren eta Industriako Zibersegurtasunerako Dirulaguntza Programaren kide izateko; azken hori 200 enpresa baino gehiagotara iritsi zen, eta horrenbestez bikoiztu egin zuen 2018ko edizioaren emaitza.

Laburbilduz, ekimenez betetako urtea izan zen iazkoa. Gailurra azaroaren 20an jo genuen, Basque Cybersecurity Day eguna antolatuz Basque Industry 4.0 2019 delakoaren barruan. Ekitaldi horretarako 3.800etik gora lagunek eman zuten izena, eta

nazioarteko parte-hartzaile esanguratsuak izan ziren bertan. Era berean, sustapen-ekitaldiak egin genituen nazioarteko zenbait azoka garrantzitsutan, barbarako San Frantziskoko RSA Conference (Estatu Batuak, martxoa), eta Nurenbergeko IT-SA (Alemania, urria); horietan, zibersegurtasunaren alorreko zenbait euskal enpresarekin eta teknologia-gunerekin aliantzak sortu genituen. Nabarmenezko modukoak dira, halaber, ECSOn dugun parte-hartzea (horretan Euskadi da Europako Eskualdeen buru Europako Batzordearen aurrean), eta EPIC Zibersegurtasun globaleko ekosistemen nazioarteko aliantzaren barruan egotea. Etorkizunari begira, 2019 hausnarketa egiteko urtea ere izan da. 2020 Agenda Digitala azken fasean dela, plan estrategiko bat garatu dugu, Euskadin zibersegurtasunarekin zerikusia duen jardura dinamizatzeko eta espezializatzeko hainbat agertoki aurreikusten dituen, bai eremu pribatuan bai Gobernu-ikuspegitik. Plan hori izan da gure gida-liburua 2025. urtera iristerako Euskadi Zibersegurtasun hub bat izan dadin Europako erreferentziatzeko industriarentzat; 2020an egingo dira lehen urratsak helburu horretara heltzeko, hainbat egitasmo oso erakargarri garatuko baitira urtean zehar.



2019ko zenbakiak

253

gertakari
kudeatu
ditugu



Iruzurra

57,7%



Malwarea

20,8%



Baimen gabe
sartzea

8,2%



Informazioa
eskuratzea

4,32%



Zaugarritasuna

3,15%



Informazioaren
segurtasuna

1,96%



Sailkatu
gabeko
gertakaria

1,57%



Baimen gabe
sartzeko
saiakera

1,17%




Neurriz
kanpoko
edukiak

1,13%

Gertakari esanguratsua

Hainbat hilabetez jarduera motela izan ostean, irailean beste EMOTET kanpaina bat hasi zen, bereziki bortitza, eta eragin handia izan zuena bai antolakunde pribatuetan bai publikoetan. BCSCk, egoerari zegozkion alertak pizteaz gain, txosten bat argitaratu zuen, nola jokatu azaltzeko jarraibide eta guzti.



Zibersegurtasunaren
alorreko
komunikazio eta
prestakuntza
ekintzak

219 Prestakuntza
eta
kontzientziazio
jardunaldi



10 Ponentzia
profesionalen
jardunaldietan



9 Ekitaldi euskal
zibersegurtasun-ek
osistema
sustatzeko



281 Agerpen
hedabideetan



Zer da BCSC

Basque Cybersecurity Centre (BCSC) da Euskadin zibersegurtasuna sustatzeko Eusko Jaurlaritzak izendatutako erakundea.

Honakoek osatzen dute Basque Cybersecurity Centre

Eusko Jaurlaritzaren sailak

- Ekonomia Garapena eta Azpiegiturak
- Segurtasuna
- Gobernantza Publikoa eta Autogobernua
- Hezkuntza

Teknologia-guneak

- Basque Center for Applied Mathematics
- Ikerlan
- Tecnalia
- Vicomtech

Gure xedea

BCSCren xedea da euskal gizartean zibersegurtasunaren kultura sustatzea eta garatzea, zibersegurtasuna ezartzearekin zerikusia duen jarduera ekonomikoa dinamizatzea eta sektore profesionala sendotzea.

Gure ikuspegia

Industrian zibersegurtasun-teknologiak ezartzeari dagokionez **Euskadi nazioarteko erreferente** bilakatzea.



Gure lurraldean zibersegurtasuna eskatzen eta eskaintzen dutenen arteko **topagune** gisa aitortza lortzea.



Liderrak izatea eremu publikoaren eta pribatuaren arteko **lankidetzaren ekimenetan**, bai bertokoetan bai eskualdeen artekoetan.



Gure baloreak



Hurbiltasuna



Zuzentasuna



Gardentasuna



Berrikuntza



Gizartearekiko konpromisoa

BCSCren tokia nazioarteko zibersegurtasunaren barruan

BCSC zibersegurtasunaren alorreko eztabaida-gune eta lantalde garrantzitsuenetako kidea da, bai maila lokalean, bai estatuan eta bai nazioartean ere, eta mundu osoko zibersegurtasun-eragile estrategikoekin batera eta haiekin koordinatuta jarduten du.

Nazioarteko hainbat ekimenetan gaude, honako helburuak dituztenak:

Zibermehatxuei erantzun bateratua eta koordinatua ematea.



Forum of Incident Response and Security Teams

www.first.org



TF-CSIRT
Trusted Introducer

The Task Force on Computer Security Incident Response Teams

www.trusted-introducer.org



European Cyber Security Organisation

www.ecs-org.eu



Global Ecosystem of Ecosystems Partnership in Innovation and Cybersecurity

www.globalepic.org

Estatuan eta maila lokalean hauekin lerrokatzen gara:

Zientziaren, teknologiaren eta berrikuntzaren euskal sarea.



Eusko Jaurlaritzako funtseko eragile publikoak: EJI, Ertzaintza eta Hezkuntza Saila.



Euskal administrazio publikoko eragile esanguratsuak: Izenpe, DBEB eta informatika-enpresa publikoak.



Euskadin diharduten lanbide, enpresa eta herritar elkarteak.



Zibersegurtasuna sustatzen duten eta alor horretako gertakariei erantzuten dieten beste erakunde publiko batzuk.

CSIRT.ES ekimenaren barruan gaude.

www.csirt.es




Zerbitzuak

BCSCk ematen dituen zerbitzuek gizarte seguruagoa lortzeko eta zibersegurtasunaren arloan enpresa-sarea finkatuago egoteko helburua dute. Zibersegurtasunaren topagunea gara Euskadin.

Hala lortu ahal izango ditugu gure helburuak: euskal gizartean zibersegurtasunaren kultura sustatzea eta garatzea, zibersegurtasuna aplikatzearekin zerikusia duen jarduera ekonomikoa dinamizatzea eta sektore profesionala sendotzea.

CERT

Zibersegurtasun-gertakariei erantzuteko talde modura eratuta gaude (CERT, Computer Emergency Response Team) eta zibersegurtasun-gertakariei aurrea hartzeko eta erantzuteko zerbitzuak eskaintzen ditugu. Carnegie Mellon-en baimena dugu CERT marka erabiltzeko.



Kontzientziazioa eta prestakuntza

Internet erabiltzearen ondoriozko mehatxuen aurrean gizarte seguruagoa sustatzea eta enpresei lehiakorragoak izaten laguntzea dira zentroaren helburu nagusietako bi.

Ukaezina da teknologiaren aurrerapena azkarragoa dela gizarteak beregana dezakeena baino, eta horregatik funtsezkoa da herritarrek ulertzea zer arrisku duen etengabe eboluzionatzen duen ingurune hiperlotuan bizitzeak, ingurune horrek oso agerian uzten baitu gure informazio pertsonala, eta ondorioz, geure burua babesteko premia sortzen dela.

Sentsibilizazioa enpresetan eta enpresa-elkarteetan

35 jardunaldi eginda

Lurraldez lurralde

Bizkaia 47%
Gipuzkoa 35%
Araba 18%

1.017 pertsonarengana iritsi gara

Zertaz dihardute edukiek?

Pertsonak, zibersegurtasunaren katebegirik ahulena



Zibersegurtasuna garatzaileentzat



Zibersegurtasuna enpresan



Zibersegurtasuna industrian



Zibersegurtasuna & ETEak. Arriskutik libre dago nire enpresa?



Zibersegurtasuna enpresen zuzendaritzetan



Adingabekoen kontzientziazioa

158 jardunaldi eginda



Hartzaileak, multzoka

Ikasleak 36,36%
Irakasleak 29,95%
Familiak 26,74%
Besterik 6,95%

Lurraldez lurralde

Bizkaia 62,30%
Gipuzkoa 24,87%
Araba 12,83%

3.000 pertsonarengana iritsi gara



Gaiak

Zibersegurtasuna bideojokoetan

Mugikorraren gehiegizko erabileraren kontrola eta prebentzioa

Segurtasuna eta Internet

Erosketa seguruak eta Internet

Etxeko zibersegurtasuna, eta norberarena

Ziberbullyinga, genero-ziberindarkeria eta bestelako indarkeria-motak Interneten

Prestakuntza

33 saio eginda

16 Tailer
11 Jardunaldi
5 Solasaldi Encounter-en
1 Biltzar

Tailerrak

Industria-arloko
zibersegurtasun-ikuskaritza

Web aplikazioen eta zerbitzuen
segurtasun-ikuskaritza

Sareen
segurtasun-ikuskaritza

Industriako kontrol-sistemen
segurtasun-ikuskaritza

Aplikazio seguruen
garapena

Segurtasuna: malwarearen
analisi

Segurtasuna: hacking etikoa, sartze
bidegabearen testa eta Red Team

Segurtasuna: analisi forentse
digitala, hastapenak

Sareen Pivoting esparrura
sarbidea, ikasi nola egin daitekeen
jauzi sare batetik bestera

Zibersegurtasuna
industria-sistemetan: OT
zibersegurtasun-hastapenak



Jardunaldiak

Zibersegurtasun-jarduera
egokiak

Iruzur informatikoak gure
inguruan, eta nola saihestu

Segurtasuna enpresan:
katebegirik ahulena sendotu

Software testing: 1, 2, 3, saiatzen,
saiatzen (ArabaTICen)

Blockchain, zure negozioa
eraldatuko duen
teknologia (ArabaTICen)

Enpresa-segurtasuna Open
Source Intelligence (OSINT)
delakoaren aurrean

Self-Sovereign Identity, nortasun
digitalaren eraldaketa eta haren
eragina enpresa-sarean eta
administrazioetan



Ekintzaitza

BCSCK aktiboki laguntzen die zibersegurtasunaren eremuan lehen urratsak egiten ari diren enpresei, informazioa izan dezaten eta eskura dituzten baliabide guztiak lor ditzaten.



Bind 4.0

Startup-en azelerazio publiko-pribatuko programaren hirugarren edizioan, honako startup-ak izan dira hautatuak zibersegurtasunaren sektorean:

JakinCode, hiru zibersegurtasun-proiektu garatzen ari dena CIE Automotive, Euskaltel eta Elecnor Taldearekin batera.

OpenCloud Factory, bi proiektu Arcelor Mittalekin eta Elecnor Taldearekin.

Hdiv Security, Euskaltekin batera lan egin duena.

Puntako azpiegiturak

Etorkizuneko erronkei aurre egiteko prest egon nahi badugu, enpresei gaitasuna ematen dieten tresnak eta zibersegurtasunaren arloko profesionalak behar ditugu. Etengabe trebatzea eta ikastea ahalbidetzen dieten lankidetzazko inguruneak.



BDIH

Basque Digital Innovation Hub aktiboen eta fabrikazioko aurreratuko zerbitzuen sare konektatua da. Prestakuntzarako, ikerketarako, probak egiteko eta balioztatzeko gune bat, enpresek eskura dutena, eta xede duena industria-arloko enpresei, eta bereziki ETEei, 4.0 industriaren erronkei aurre egiteko behar dituzten gaitasun teknologikoak ematea.

Zibersegurtasun-nodoa

Elkarrekin konektatuta dauden 3 lurralde historikoetako 5 laborategik osatzen dute. Laborategiok ekintzailtza eta berrikuntza sustatzeko baliatzen dira, berebiziko arreta emanez smart-grid, automobilgintza, blockchain eta produktuak probatze/egiaztatze proiektuei, besteak beste.




Vicomtech
Donostia

Jarduera-eremua:
4.0 Industria eta
Blockchain.



Ikerlan
Arrasate

Jarduera-eremua:
Produktuak probatu
eta egiaztatzea, 4.0
Industria eta
Blockchain



**Tecnalia PTA
(Cyber Range)**
Gasteiz

Jarduera-eremua:
Entrenamendua eta
trebatzea.



Tecnalia
Zamudio

Jarduera-eremua:
Smart-grid,
Automobilgintza eta
Blockchain.



BCAM
Bilbo

Jarduera-eremua:
Eredu
matematikoak eta
simulazioa.

Cyber Range

Basque Digital Innovation Hub zibersegurtasun-nodoaren barruko aktiboetako bat Arabako Teknologia Parkean dagoen Cyber Range da. Laborategi hori nodoko beste lau laborategiekin konektatuta dago, eta espresuki diseinatu zen zibersegurtasunaren arloko profesionalak entrenatzeko eta etengabe prestatzeko. Era berean, sektorean jardungo duten profesional berriak trebatzen ditu.



Izaera teknikoko edukiak

Argitaratzen duen eguneratutako informazioari esker, BCSC da zibersegurtasunaren alorreko erreferentziatzko erakundea Euskadin.

Zibersegurtasunaren alorreko hainbat alderdi monitorizatzea aurreikusten dituen Behatoki Teknologikoko prozesu baten bidez argitalpenak sortzen ditugu, inpaktu esanguratsua duten gaur egungo zibermehatxuak ikusarazten laguntzeko.

Artikuluak, gidak, azterketak

Industria-inguruneetan zibersegurtasunaren diagnostikoa egiteko jardunbide egokiak

BCSCk industria-antolakundeei laguntzeko gida bat diseinatu zuen, haien instalazioek zein arrisku izan dezaketen ezagutzeko helburuz; horretarako, ahulguneak identifikatu ziren. Era berean, antolakundeok egin ditzaketen ekintzak proposatu ziren, arlo honetan heldutasun handiagoa izateko eta babestuago egoteko.




Emotet

Irailean atzeman zen Emotet izeneko malware-kanpaina bati ekin zitzaiola berriz, jarduera murrizteko hilabete batzuen ostean. Kanpaina bereziki erasokorra izan zen mehatxua barreiatzen zuten mezuen kopuruari dagokionez, baina ez zuen inpaktu masiborik eragin, ohiko babes-neurriak nahikoa direlako hartatik babestuta egoteko, eta sistemak kutsatzeko erabiltzaileen elkarrekintza behar delako.

BlueKeep zaurgarritasuna

Bluekeep zaurgarritasun larria da (CVE-2019-0708), Erresuma Batuko Segurtasun Zibernetikoko Zentro Nazionalak aurkitutakoa, eta Windows NT, Microsoft Windows (Windows 2000tik Windows Server 2008 R2ra) eta Windows 7 sistemen aldarazi gabeko bertsio guztietan dagoena.




LockerGoga

Ransomware bidezko erasoek masiboki eragiten diete herritarrei eta enpresei, haien jarduera-sektorea edozein dela ere. Urte hasieran ransomware familia berri bat agertu zen, LockerGoga izenekoa, industria-eremuko enpresei eta fabrikaziokoei eragin ziena, eta azken hilabeteetan hondamenezko ondorioak izan zituen.



MIRAIren aldaera berria

Mirai botnet-mota bat da, IOT gailuei eragiteko diseinatu, hala nola routerrak, segurtasun-kamerak, DVRak eta beste zenbait, lehenetsitako egiaztagiriak erabili ohi dituztenak, eta Linuxen oinarritutako sistema operatiboaren bertsio zaharrak. Botnet hori mundu osoan ezagun bihurtu zen 2016an, hainbat entitatearen aurka egindako DDoS erasoak zirela eta. Entitate horien artean zeuden, esaterako, OVH hosting-hornitzailea eta DynDNS hornitzailea; horrek zuzenean eragin zion Twitter, Spotify, Netflix eta PayPal zerbitzuen eskuragarritasunari, besteak beste.



Zibersegurtasuneko Konponbideen Taxonomia

Proposatutako zibersegurtasun-taxonomiak hainbat maila ezartzen ditu. Batez ere, produktuei eta zerbitzuei dagozkienak bereiz ditzakegu. Sailkapen horri esker, xehe-xehe jakin daiteke zer produktu eta zerbitzu dagoen gaur egun zibersegurtasunaren merkatuan. Hala, produktu eta zerbitzu horien irismenak aukera ematen du bakoitzak zein eremuri eragiten dion identifikatzeko.



Alertak Euskarri tekniko faltsuaren iruzurra

Iruzur-mota honetan, ziberkriminalek telefono-zenbakietara deitzen dute, euskarri tekniko batekoak direla esanez, normalean Microsoftekoak, deitu dioten pertsonaren gailuan arazoren bat atzeman dutela argudiatuz, eta konpondu ahal izateko tresnaren bat instalatzeko baimena eskatuz. Tresna hori instalatutakoan gailuan dagoen informazioa zifratzen dute, eta dirua eskatzen dute itzultzearen truke.



Segurtasun-oharpenak


Argitaratutako
zaugarritasunak,
tipologiaren arabera:

Teknikoak
59.56%
SCI
40.44%




Infografiak

Aholkuak eta jarraibideak ematen dituzten 10 infografia argitaratu ditugu, Euskadiko erabiltzaileek eta enpresek zibersegurtasunaren alorrean duten heldutasuna handitzeko.



Sartu gure webgunean eta deskarga itzazu gure infografia guztiak



Enpresentzako sostengua

Euskadin baditugu zibersegurtasunean espezializatutako enpresak, kalitate-estandar gorenak ziurtatzen dituztenak.

Hainbat zerbitzu garatu ditugu, euskal gizartean zibersegurtasunaren kultura sustatzeko eta garatzeko, zibersegurtasuna aplikatzearekin zerikusia duen jarduera ekonomikoa dinamizatzeko eta sektore profesionala sendotzeko helburuak lortze aldera.



Liburu zuria

Zibersegurtasunaren sektorearen analisi bat erakusten duen azterketa egin du BCSCk. Haren barruan kontuan izan dira funtsezko zenbait alderdi, besteak beste sektorean dauden aurreikuspenak eta aukerak, baita ere Euskadin zibersegurtasuna jorratzen duten antolakundearen egoera zehatza.



Zibersegurtasun-katalogoa

BCSCk bilatzaile bat sortu du bere webgunean, Liburu Zuriaren osagarri.

141 Enpresa
87% Zerbitzu-emaileak
13% Fabrikatzaileak

Dirulaguntzak

Eusko Jaurlaritzak, BCSCren bitartez (SPRI Taldea), industria-arloko zibersegurtasunerako laguntza-programa abiarazi zuen 2019ko maiatzean, egoitza Euskadin duten industria-arloko enpresen babesa handitzeko, eta era horretan, gainera, zibersegurtasuna lehiatzeko abantaila izan dadin haientzat.

224

Eskaera aurkeztuta



219

Proiektu onartuta



207

Onuradun industria-enpresa



112 Gipuzkoa

72 Bizkaia

35 Araba



1,95 milioi

Eusko Jaurlaritzaren laguntza



4,45 milioi

Inbertsio pribatua



Ekimen nabarmenak

Nazioarteko ekintzak garatu dira, nazioarteari begira lan egiten duten industria-alorreko euskal zibersegurtasun-enpresei laguntzeko, eta Euskadi lurralde ziberseguruagoa izateko sinergia berriak eratzeko.

BCSCn hainbat ekimen antolatu eta sostengatu ditugu, soslai eta sektore desberdinen arteko sinergiak eratzeko, eta modu horretan zibersegurtasuna hobetzeko Euskadin.

Talentuari sostengua



Euskalhack

Laugarren edizioan 180 profesional baino gehiago bildu ziren, eta eduki guztiz teknikoko hainbat ponentzia eta tailerretan parte hartu zuten. BCSCko kideok egindako ekarpena SECTF izeneko ekimen biziki interesgarria izan zen, zeinaren helburua baitzen ziberkriminalak gehien erabiltzen dituzten ingeniari-tza sozialeko teknikak identifikatzea, horrelako iruzurren biktima ez izateko kontzientiazioa zein garrantzitsua den azpimarratzeko abiapuntu gisa.



Euskal Encounter

Euskal Encounterren 27. edizioa informatika-arloko zale eta profesionalen topagunea izan zen; haien helburua ezaupideak trukatzeko eta, hainbat egunez, informatikaren esparruko mota guztietako jarduerak egitea izan zen. Edizio honetan zibersegurtasunak garrantzi handia izan zuen, eta eremu horretako hainbat jardura egin ziren.



Araba Encounter

Teknologia-ekimen horren seigarren edizioa egin zen abenduaren 6tik 8ra bitartean, Lakua Gizarte Etxean. Arrakasta erabatekoa izan zen, eta parte-hartzea %50 handiagoa izan zen aurreikuspen baikorrenek iragarritakoa baino. Opengune izeneko gunean hitzaldiak eta tailerrak eskaini ziren dohainik, interesa zuten guztiengana teknologia gerturatzeko.

Parte-hartzea Euskadiko kongresuetan

Isaca

Maiatzaren 10ean ISACA Roadshow Kongresua egin zen Bizkaia Aretoan; hori izan zen Euskadin antolatutako ISACAren roadshowen lehenengo edizioa. Ekimenean parte hartu zuten Informazioaren Teknologien (IT) ikuskaritzaren, zibersegurtasunaren, arrisku teknologikoen eta ITak gobernatzeko arloetan dabilzan estatuen iparraldeko profesionalak.



Arabatic

Enpresa Digitala ekimenaren bitartez SPRIk antolatzen duen ArabaTIC ekimenaren hirugarren edizioan teknologia digitalei buruzko hainbat hitzaldi antolatu ziren, bereziki zibersegurtasunaren eta 4.0 Industriaren esparruetakoak.



Next Secure

Nazio-mailan erreferentziazkoa den zibersegurtasun-ekitaldiaren 21. edizioan enpresa pribatuaren eta erakunde publikoen ordezkariak zabala bildu zen, informazioaren segurtasunaren teknologiaren eremuko azken beritasunak partekatzeko asmoz.



IV. segurtasun pribatuko batzarra

Eusko Jaurlaritzaren, Ertzaintzaren, Cuadernos de Seguridad aldizkariaren, PSIren eta SEren babesaz eta laguntzaz egindako Batzar honetan lehentasuna eman zitzaion araudiari buruzko gaiei, baita operatiboei eta teknologikoei ere. Horien artean azpimarratzeko modukoak izan ziren 4.0 segurtasuna, jagoletzaren etorkizuna eta bilakabidea, digitalizatzeko-prozesuekin lotutako segurtasuna eta lankidetzaren publiko-pribatuko eredu berriak, besteak beste.

Ikusgaitasuna nazioartean




Massachusetts Institute of Technology (MIT)

Javier Diéguezek MITeko Zibersegurtasun-ikerlarien aurrean aurkeztu zuen zibersegurtasunaz ikertzen diharduten Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko hamar eragile aktiboenen soslai berritzailea: Tecnalia, Vicomtech, Ikerlan, BCAM, DeustoTech, Mondragon Unibertsitatea, UPV-EHU, Ceit, Tecnun eta Innovalia.



RSA Conference

San Frantziskon (Estatu Batuak) egindako ekimenaren barruan, BCSCk, zenbait euskal zibersegurtasun-enpresarekin batera, jardunaldi bat antolatu zuen zibersegurtasunaren euskal ekosistemak duen ahalmena erakusteko. Jardunaldi horretan Arantxa Tapia Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailburua egon zen.



Euskadi-Basque Country, aukeren lurraldea

Basque CyberSecurity Centre eta Eusko Jaurlaritzako Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia hainbat herrialdetako enbaxaden ordezkariekin elkartu ziren Madrilén, Euskadiko ekosistema teknologikoak zibersegurtasunaren alorrean dituen gaitasunak azaltzeko.

CSIT 9th Annual World Cyber Security Summit

BCSC, Global EPIC izeneko aliantza global bateko kidea den aldetik, ekimen honen parte-hartzaileetako bat izan zen, mundu osoko industriako liderrekin, gobernu-politiken sortzaileekin eta enpresa eta ETE berrieekin batera. Xedea gizarte digital seguruagoa sortzeko ekimenak sustatzea izan zen, baita segurtasunarekin lotura duten munduko enpresa berrien hazkundeari laguntzea ere.



ECSO

Berriz ere Javier Diéguez, Zibersegurtasun Euskal Zentroko (BCSC) zuzendaria, aukeratu zuten Europako Eskualdeak ordezkatzeko ECSOren Lankidetza Batzordean (Partnership Board). Diéguez bazegoen lehenagotik ere karguan; zehazki, aurreko urteko ekainetik. Erakunde horrek lagundu egiten du Europako Batzordean zibersegurtasun-proiektuekin zerikusia duen lan-egitarauaren eztabaida sustatzen.



IT-SA

Eusko Jaurlaritzaren eskutik, SPRI eta BCSC, zibersegurtasunaren esparruan lan egiten duten bi euskal erakunde, Nurenbergen (Alemania) egindako ekitaldira joan ziren. 27 herrialdeko 700 erakustoki baino gehiago egon ziren bertan.



FIRST

Ekimen honekin bat egiteak aukera ematen dio BCSCri mehatxuei, lanabesei, erantzun-estrategiei... buruzko informazioa eskuratzeko modu proaktiboan. 1988an sortu zenetik, harekin bat egin dute kontinente guztietako 400dik gora antolakundek, eremu publikokoak zein pribatukoak, militarrekoak, hezkuntzakoak edo gobernuetakoak, besteak beste. Gaur-gaurkoz, topagune hori ezinbestekoa da zibersegurtasun-intzidenteei erantzuten dieten taldeen arteko lankidetzaren sustatzeko.



Global Forum

Javier Diéguez BCSCko Zuzendariak "Fostering Security by Design in Digital Innovation" goiburuko taldean parte hartu zuen. Talde horretan jarraibideak eman ziren enpresa berriek (ez segurtasunaren arlokoek bakarrik) lehen unetik zibersegurtasuna baliatu ahal izateko, eta produktu eta zerbitzu digital berritzaileak eta seguruak garatu ahal izateko.

Miamiko S4 Digital Bond

BCSCk parte hartu zuen industria-zibersegurtasunean espezializatutako Industrial Digital Bond iparramerikar konpainiak antolatutako ekimenean. Dagoeneko, biltzar hau erreferentziazko ekitaldi teknikoa da industria-kontrolako sistemen zibersegurtasunaren alorrean ikerketa berrien emaitzak ezagutu nahi dituztenentzat.




Basque Industry 4.0 eta Basque Cybersecurity Day

Aurten bat egin dute bi ekitaldiek, zibersegurtasuna honezkero 4.0 Industriaren beste eremu teknologiko bat baita, balio-katearen antolakuntza- eta kontrol-mailaren barruan ezinbestekoa eta beharrezkoa, espezifikazio tekniko eta operatiboetatik hasi eta, eskaeratik pasatuz, ekoizpenera, ematera, sostengura, mantentura eta bukaerako birziklatzera arte.

BCSCk gonbidatuta, FIRSTeko kideentzat topagunea izan zen ekitaldia

Zibersegurtasunaren arloko euskal enpresa nagusietatik, esparru horretan punta-puntakoak diren hogeitau baina gehiago egon ziren Expo atalean. Euskadin, 4.0 Industriaren eta industria-zibersegurtasunaren erreferentziazko ekitaldia da Basque Industry 4.0-The Meeting Point.

Ekitaldian hainbat formatuk egin zuten bat, hala nola goi-mailako ponentziek, adibideen aurkezpenek, elkarrizketek, mahai-inguruek, erakusketek, eta 4.0 Industriako eta zibersegurtasuneko gaien erakustaldi-guneak.



BCSC hedabideetan

Agerpenak

2019an BCSCri buruzko informazioa agertu da hainbat hedabidetan, bai orokorretan bai espezializatuetan

Bertako hedabideak



Hedabide nazionalak



Ekonomia-arlokoak



Agentziak



Irratiak



Zibersegurtasunaren arloko hedabideak



Multimedia-aleak

260
Ale
sortuta

52
Zibergaldera



104
Bazenekien



104
Ziberaholku



Sare sozialak (2019 vs. 2018)

+5,42%
Jarraitzaileak
Twitterren



+147,41%
Jarraitzaileak
Linkedinen



+15%
Jarraitzaileak
Youtuben



Webgunearen trafikoa

+108%
Erabiltzaileak



+105%
Erabiltzaile
berriak



+96%
Saioak



+127%
Orrialdeei
bisitak



+16%
Orrialde saioko



+3%
Iraupena

